



AGURRA

Alkate naizen hirugarren urteurren honetan, laugarren aldia da zuei hitz batzuk idaztea egokitzen zaidana, eta hitz horiek barrutik idaztea erabaki dut. Nire sentimenduetatik, hiru urte hauek sortu dizkidaten barne hausnarketetatik, eta zuek guztiok merezi duzuen zintzotasunetik.

Zuetako askorekin egoteko aukera izan dut, zuek ezagutzeko aukera, entzuteko aukera eta ulertzen saiatzeko aukera. Batzuek gehiago maitatuko nauzue, eta gutxiago, nola ez, beste batzuek. Azken batean, gure herriaren errealitatea hori delako, eta errealitatea argi mintzo delako: anitza da, eta dinamikoa ere.

Anitza, oso anitza da gure herria, eta aniztasun hori urtez urte, eta aiez ale, jasoa geratu da Oarso urtekarian. Gure herriak jakin du aniztasun hori altxor bilakatzen, aniztasuna, eta ezberdintasuna, ez baita gatazkaren sinonimo. Bereziki, azken urte hauetan asko aurreratu du gure herriak aniztasun horren balio eta elkarbizitzan.

Bide horretan, aldizkariko orriek eta hitzek herritik jasotakoa bueltatzen diote herriari. Gabriel Arestik zioen bezalakoa da Oarso aldizkaria: *“Nire poesia, oso merkea da; herriaren ahotik hartu nuen debalde; eta debalde ematen diot herriaren belarriari”*.

Zorionak herritar orori Madalenak atari hauetan!!! Zorionak ere aniztasuna altxor bilakatu duzuen orori!!!!

Jaso agur bero bana, bihotz-bihotzez.

Gora gure Madalenak!!

Julen Mendoza Perez
Errenteriako alkatea

SALUDA

Tras tres años como alcalde, ésta es la cuarta vez que me dirijo a vosotros y a vosotras, y lo he decidido hacer desde el plano más personal. Desde los sentimientos, desde las reflexiones generadas durante estos tres años, y en todo caso, desde la sinceridad que os merecéis.

He tenido la gran suerte de estar con muchos y muchas de vosotras, de conoceros, de escucharos y de intentar comprenderos. Habrá quién me quiera, y por supuesto, habrá quién no. Porque en todo caso, ésa es la realidad de nuestro pueblo, y la realidad habla por sí sola: es diversa, y dinámica.

Así es. Nuestro pueblo es diverso, muy diverso, y esta diversidad se ha venido reflejando año tras año y en los diferentes ejemplares del anuario Oarso. Nuestro pueblo ha sabido convertir esa diversidad en un elemento de enorme riqueza, toda vez que la diversidad y la diferencia no son sinónimos de conflicto. Y es sobre todo en estos últimos años, donde hemos progresado de manera significativa en los valores de la diversidad y de la convivencia.

En ese camino, las palabras y las páginas recogidas en la revista Oarso ofrecen a la ciudadanía lo recogido por la propia ciudadanía. Así, la revista Oarso es como aquello que escribió Gabriel Aresti: *“Mi poesía es muy barata; la recogí de balde de la voz del pueblo, y de balde se la devuelvo al oído del pueblo”*.

Zorionak a todos y todas las ciudadanas en estos días previos a las Madalenas!!

Zorionak a todas las personas que habéis hecho de la diversidad un enorme valor de riqueza!!

Recibid un saludo de todo corazón.

Gora nuestras fiestas de las Madalenas!!

Julen Mendoza Pérez
Alcalde de Errenteria

